

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

## Gizarte politikak soilik pobreentzat?

**A**zkenaldi honetan, Madrilgo PSOEko Gobernuak hartutako hainbat neurrien harira, zenbait komunikabidetan zein iritzi publikoan planteatu omen da Copago edota Gizarte Prestazioen Unibertsaltasunari buruzko eztabaida.

Laburbiltzearen, zenbaitek unibertsaltasunaren aurrean –zerbitzu publikoek behar gehien dutenean– diruaren zentratzea aldarrikatzen dute, honen bidez baliabideen erabilpen egokiagoa lortzeko.

Diskurtso horren atzean fede ona egon daiteke –zenbaitetan–, baina unibertsaltasunarekin bukatzeak onurak baino kalteak ekarriko lituzke maila ezberdinetan. Lehenik eta behin, hiritartasunaren kontzeptua bera arriskuan jarriko litzateke, aberatsek euren ongizateagatik ordaindu beharko luketelako, arlo publikoan zein merkatu pribatuan. Baina bestetik, askoz ere arriskutsuagoa dena, gizarte politiken deslegitimazioa emateko aukera handiak sortuko lirateke honen bidez. Izan ere, ezin dugu ahaztu Ongizate Estatu garrantuetan klase ertainak nagusi direla eta edozein neurri politikok hauen babesa behar duela bere bideragarritasuna bermatu ahal izateko. Hau horrela izanik, klase ertainetara zuzentzen diren neurriek askoz ere babes handiago izaten dute, hauen artean osasuna edota hezkun-



INIGO AZKONA

tza kokatuko lirateke. Beste muturrean, errenta minimoak edota langabezia subsidioak askoz ere kritika gehiago jasotzen dituzte maila orokor batean. Era berean, ikuspegi hau gailenduz gero arrisku handia egongo litzateke gizarte zerbitzu publikoen ahultze prozesu bati hasiera emateko. Amerikako Estatu Batuetan (AEB) osasun edota hezkuntza publikoan gertatzen dena izan daiteke honen adibidea. Bakarrik behar gehien dutezentzat eskaintzen dira eta zerbitzu hauen kalitatea zein estaldura nahiko kaskarra izaten da. Aitzitik, lurralde eskandinaviarretan,

gizarte politikak unibertsalak izanik, zerbitzu publiko gehienek kalitatea eta legitimazioa erabatekoa da. Gauza bera gertatzen da hemen ere: norbait ausartuko al litzateke Osakidetza edota hezkuntza sistema publikoak kentzen? Aldiz, gehiago izango lirateke gutxieneko errenta edota mota honetako neurriak ezabatzearekin ados egongo liratekeenak.

Laburbilduz, niretzat eztabaida ez datza gizarte prestazioen unibertsaltasunaren inguruan. Helburua aurrera egitea bada, hau ez da gizarte politiken bidez gauzatu behar –Copago eta mota honetako neurrien bidez– baizik eta zerga sistemaren bidez. Hala ere, zergei buruz hitz egin behar badugu hobe izango da hauteskunde kanpaina pasa eta gero hitz egitea. ■

«  
 Helburua aurrera egitea bada,  
 hau ez da gizarte politiken bidez  
 gauzatu behar baizik eta zerga  
 sistemaren bidez. Hala ere, zergei  
 buruz hobe hauteskunde kanpaina  
 pasa eta gero hitz egitea  
 »

### HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



...que podemos”. Arratsaldeko bos-tak. Eguraldi bikaina.

Pausutik Santioko zubira bide gorritik oinez. Estropadak. Traineruak. Estropalariak laurhonetik goitik. Zubian, ziabogetako erreferentziak. Dozenatik gora lagun kronometroa lepotik zintzilik traineruei denborak ematen: “Tres por detrás, hasta ahora primeros”. Zubi azpitik joan etorrian igarotzean, lemazainen oihuak entzuten genituen: “Venga equipo otra serie”. Nola doaz orain artekoak? San Pedro aurretik Astillero eta Orio gainean. Euskalduna zen denborak erdaraz ematen ari zena. Eta inguruan zeuzkanak denborak kontrolatzen

## Venga equipo...

dunak, Orio eta Hondarribia. Hauen lemazainak euskaraz ematen zituzten aginduak. Ez ziren bakarrak izango baina nik euskaraz entzundakotik bai. Gero, ontziralekura egin nuen, arrakalara. Erdara Titanic, euskara txintxorro. Hondarribiako ezagun bati adierazi nion nire kezka. Ez zen harritu, bileretako hizkuntza omen dute gazte-lara, denena. Ez gara hasiko itzulpenetan. Pena, Lapurdiko koadrilarik ez izatea arraunean, Euskal Herriko bestea ere, frantsesa ere entzuteko. Normalizazioa iritsi zaigula hona ere. Zer Kristo, mil colorau. ■